

EZKONBARRIAK

1. Hemen gatortzuz, Aita
gaur zure aurrera
guztiok batera,
eskari batzuk Zeuri
fedez egitera.
Ezkonbarriak lagun
gatoz altarera,
Zeu behar zaitugu ta
zatoz laguntzera:
bedeinkatu gagizuz
Aita on antzera.

2. Jose Andres, Sonia
lotuta alkarri,
hau egun pozgarri!
Zeu izan zaitez bien
zorion-iturri.
Sendotu Zeuk maitezko
ezkontza-lokarri,
beti iraun dagien
batuta alkarri;
Pozez esan dagigun:
GORA EZKONBARRI!

3. Behin baten izan zinan
ezteguan Kanan,
zer gertatu zan han?
Ura bedeinkatuta
ardau goxo edan...
Hona, senide barri
zelan egin garan,
Zeu egon zaitez gugaz
ta laguntza eman;
bedeinkatu gagizuz
danok banan banan

4. Zeure aurrean gagoz
erreguka fedez
eztegu-egunez:
Zeuk bete gaizuzala
osasun ta bakez.
Senide zahar ta barri
alkartuta pozez,
eskatzen deusugu gaur
danok maitasunez:
Bedinkatu SONIA
eta JOSE ANDRES!